

# Landa-lan kualitatiboaren txostena

## 2020ko Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriaren esparruan

Hirugarren Sektore Sozialeko Euskal Behatokiko taldea

2021eko urtarrila



**3seuskadi**

Hirugarren Sektore Sozialaren  
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del  
Tercer Sector Social

## Aurkibidea

Sarrera.....	3
Adituekin eginiko saioa .....	4
Sareen Sarearekin eginiko saioa .....	5

## Sarrera

Aurreikuspenen arabera, 2020ko Liburu Zuriak aurreko Liburu Zuriaren logika bera jarraitu behar zuen, eta datu kuantitatiboen azterketa hainbat eztabaida-talderen bitartez eginiko landa-lan kualitatiboarekin osatu behar zen. Alabaina, Covid-19aren krisia landa-lan kualitatiboa diseinatzen ari ginen unean hasi zen, eta lan-prozesuaren zati bat egokitu egin behar izan genuen pandemiaren testuingurura.

Horregatik, hiru herrialde historikoetako EHSSko erakunde eta sareekin aurreikusi genituen eztabaida-taldeak ezin izan ziren osatu. Hala ere, txostenak bi hausnarketa kualitatibo ditu: adituekin eginiko lan-saioa eta Sareen Sarearekin eginiko alderaketa-saioa. Bi saioei esker, datuen azterketa elikatu ahal izan dugu eta EHSSren erronkak eztabaidatu.

Gainera, nabarmendu behar dugu txosteneko datuak 2019koak direla, nahiz eta landa-lanean eta erronketan bildutako gogoetak jasotzen dituen txosteneko ondorioen atalak Covid-19ak eragindako krisiaren testuinguruko xehetasunak dituen.

## Adituekin eginiko saioa

Datu kuantitatiboen analisisa aberasteko, 2020ko martxoaren hasieran saio bat egin genuen adituekin. Azterketa kuantitatibotik ateratako datu nagusien aurrerapen bat aurkeztea zen saioaren helburua, kontrastatu eta ñabardurak txertatzeko, eta emaitza horietatik abiatuta, EHSSk hurrengo urteetarako dituen erronketan lan egiteko.

Beren ezagutzagatik edo garrantziagatik informatzaile garrantzitsutzat hartu genituen pertsonak gonbidatu genituen saiora. EHSS, Estatuko eta Kataluniako hirugarren sektore soziala, unibertsitate arloa eta instituzioen arloa ongi ezagutzen zuten pertsonak parte hartu zuten saioan. Batzuek aurrez aurre parte hartu ahal izan zuten, eta, beste batzuk, bideodei bidez konektatu ziren. Oro har, 4 pertsonak hartu zuten parte online eta 6k presentzialki, saioa dinamizatzen aritu ziren Behaketa taldeko kideekin batera.

Saioak 3 ordu iraun zuen, eta datu kuantitatiboak aurreratu eta gogoeta egin zuten, honetarako:

- a) adostasun eta desadostasun puntuak identifikatzeko;
- b) diagnostiko kuantitatiboa hobetu, zabaldu, zehaztu eta zuzentzeko ekarpenak biltzeko;
- c) gogoeta sustatzeko eta ideiak aberasteko;
- d) eta erronkak eta orientabideak identifikatzeko.

Adituen saioan landu zituzten ideien artean hauek izan ziren nabarmengarrienak:

- EHSS berritzea: erakunde berriak sortzeak (behar berriei erantzutea, lotzen dituen izaera...) eta EHSSn ibilbide luzeagoa duten erakundeekin izandako elkarbizitzak duen zentzua ulertzea.
- Ekarpene bereizgarriak ulertzea, EHSS osatzen duten erakundeen artean dibertsitate handia baitago.
- Parte-hartzeko modu berriak, bai herritarrena, oro har, bai boluntarioena, zehazki.
- Sektorearen feminizazioa: erakunde gehienek emakumeengana bideratzen dute haien jarduera. Halaber, gehiengoa dira boluntarioen eta soldatapeko langileen artean.

Era berean, erronka hauen inguruan eztabaidatu eta hausnartu zuten: erakundeen autonomia, lantaldeen eta gobernuko organoen barruko errelebo orokorra, sektorearen eraketa eta egituraketa, kide izatea eta partekatutako identitatea, erakundeen jasangarritasun ekonomikoa eta gizarte-eragileen onarpena, gizarte-eraginari dagokionez.

## Sareen Sarearekin eginiko saioa

Gerora, 2021eko urtarrilean, Covid-19aren krisiaren eraginpean, alderaketa-saioa egin zuten Sareen Sareako batzordearekin, txostenean eginiko azterketa partekatu eta Behaketarako taldeak hauteman zituen erronkak kontrastatzeko. Zehazki, saioak bi helburu zituen:

- a) Txostenaren datu kuantitatiboen inguruko hausnarketa bateratua egitea.
- b) Behaketarako taldeak identifikatutako erronkak partekatzea eta zehaztea.

Saioa online izan zen, Zoom plataformaren bitartez, eta Sareen Sarearen batzordeko 9 kidek hartu zuten parte.

Saioak 2 ordu iraun zituen eta bi bloketan zegoen egituratuta:

- a) Datu kuantitatibo nagusiak aurkeztu zituzten:
  - a. Txostenak dituen gaikako 7 ataletako datu nagusien errepasoa egin zuten: identitatea, jarduera, pertsonak, baliabide ekonomikoak, kudeaketarako tresnak eta komunikazioa, kanpo-harremanak eta sektorearen harremana eta egoera. Iritziak partekatu eta elkarrekin hausnartu zuten.
  - b. 2019ko eta 2014ko datuen (2015eko Liburu Zuriaren datuekin) azterketa konparatiboa aurkeztu zuten txosteneko atal bakoitzarentzat, azken 5 urteotan EHSSk izan duen bilakaera ikusteko.
- b) Datuen azterketatik, adituekin eginiko saiotik eta hirugarren sektorearen inguruko beste ikerketa esanguratsu batzuetatik ateratako datuen azterketatik abiatuta, Behaketarako taldeak identifikatu zituen erronkak aurkeztu eta eztabaidatu zituzten.

Halaber, datuen azterketa batzuetan xehetasunak gehitzeko ideiak ere azaldu zituzten. Sareen Sarean landu zituzten ideia nabarmengarrienak hauek izan ziren:

- Oro har, saioan azaldu zuten gai nagusietako bat 2020ko Liburu Zuriari datuak komunikatzeko moduaren inguruan zuten kezka izan zen. Izan ere, Covid-19aren pandemia hasi aurretik bildu zituzten datuak dira.
- Erakunde berriak sortzearen inguruan eta EHSSko erakunderik gazteenen jardueraren eta identitatearen inguruan hausnartu zuten.
- Funtzioen orekaren, erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzuen eta ardura politikoko zerbitzuen inguruan eztabaidatu zuten.
- Pandemiaren ostean erakundeek jasangarritasun ekonomikoaren inguruan duten kezka helarazi zuten.
- EHSS egituratzeko prozesuaren inguruan ere egin zuten gogoeta.